



2013KO MARTXOAREN 8KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko martxoaren zortzian, arratsaldeko ordubi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Inazio Estenso-ro Eskisabel.

Haizea Mendia Insausti eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2013ko otsailaren 15ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 5 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientearen dagoena, HOGEITA BOST MILA LAUREHUN ETA HIRUROGEITA BEDERATZI EURO ETA BERROGEITA HAMABOST ZENTIMO (25.469,55 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Etxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 13-11-01 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea, 2013ko otsailaren 2an, astelehene-tik larunbatera egunero ordu bete. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %2a izango da.
- 671.2 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2013ko otsailaren 19an, heriotzagatik.
- 08-11-008 zbk.dun esped.: zerbitzuan baja ematea 2013ko otsailaren 28an, egoitzan sartu dela eta.

Gizarte Larrialdietarako laguntzak.-



- 13-01-005 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu gastuetarako hilean 250 € ematea, martxotik abendura, eta mantenimentu gastuetarako hilean 92,5 €, martxotik ekainera. Ematen zaiona eskatutakoaren %100 da.
- 13-01-003 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantenimentu gastuetarako laguntzetatik baja ematea, martxoko hilabetetik, diru sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzaren prestazio osagarria jasotzeko eskubidea izateagatik.
- 12-01-005 zbk.dun esped.: etxebizitzaren alokairu eta mantenimentu gastuetarako laguntzetatik baja ematea, martxoko hilabetetik, diru sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzaren prestazio osagarria jasotzeko eskubidea izateagatik.

Presoen familientzat garraio laguntza.-

- 12-13-01 zbk.dun esped.: bere senitarteko bat preso dagoela eta, bidaietako 58,25 € ematea hilero.
- 12-13-02 zbk.dun esped.: bere senitarteko bat preso dagoela eta, bidaietako 86,50 € ematea hilero.
- 12-13-03 zbk.dun esped.: bere senitarteko bat preso dagoela eta, bidaietako 135,34 € ematea hilero.

IV.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak bederatzi gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

